

RUDO AULKIAK

Erabaki hau gure inguruko hainbat elbarritasun kasu ezagutu, ikusi eta aztertu ondoren hartu genuen. Talde moduan garrantzi handia ematen diogu autonomiari eta pertsonen askatasunari. Gertuko kasu hauek bultzatu gintuzten proiektu honi hasiera ematera eta hauen beharrak asetze aldera erronka hau hartzea erabaki dugu.



Gure azkeneko ideiak gurpildun aulkiaren aurreko aldean topatzen diren motorren egokitzapen eta berregokitzapen pertsonalizatuak egitean datza. Proiektu honen bidez ahalik eta lesionatu gehienetara egokitzen den egokitzapenak egitea lortu nahi dugu. Hau egiteko Batec mobility (enpresetarako ekipamenduaren hornitzailea) enpresarekin elkarlan bat hitzartzea erabaki dugu.

Enpresako bazkideok produktuen diseinuarekin, webgunearen diseinuarekin, arloaren inguruko jakinduriarekin, langileen motibazioarekin eta saltzeko abileziarekin lagunduko dugu. Nahiz eta elkarlana izan gure enpresako kideen helburua prozesuan dena nola doan kontrolatzen joatea da eta baita ahal dugun neurrian gure ekarpenak egitea, pausuz pausu proiektu honekin jarraitzeko.